

Itza

Aurkibidea

Udalerria: Itza

Sarrera



Iruñeko merindadeko udalerria. 1942an lehengo Itza Zendea eta Gulibarrak batu egin ziren, Nafarroako Aldundiaren erabakiz, arrazoi demografiko eta administratiboetan oinarrituta. Hainbat herrik osatzen dute udalerria: Aginaga, Aldaba, Aldatz, Aritz, Atondo, Eritze (herriburua), Gulia, Itza, Larunbe, Lete, Otxobi, Orderitz, Saratsa, Saratsate, Zia eta Zuasti.

- **Biztanleak:** 1.167
- **Euskaldunak:** %8,58

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **5**
- Zintak: **4**
- Pasarteak: **8**
- Transkribatutakoak: **4**
- Audioak: **8**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Gregoria Baraibar Erbiti (1912)

Larunbeko Oraien auzokoa (garai batean Gulibar). Aita ere bertakoa zuen; ama, berriz, Etxalekukoa (Imotz).

Isabel Erize Egozkuezabal (1911)

Larunben (Itza -edo garai batean Gulibar-) jaioa 1911n. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Nuingoa (Txulapain)

Hipolito Goñi Erro (1901)

Itzako Zia herrikoa (garai batean Gulibar). Ama ere bertakoa zuen; aita, berriz, Etxalekukoa (Imotz).

Juan Larunbe Aizkorbe (1923)

Aginagan (Itza -edo garai batean Gulibar-) jaioa 1923an. Ama bertakoa zuen eta aita, berriz, Izurdiagakoa (Arakil). Bere anaia [Manuel](#)ekin batera egin zion grabazioa Koldo Artolak 1986an.

Manuel Larunbe Aizkorbe (1922)

Aginagan (Itza -edo garai batean Gulibar-) jaioa 1922an. Ama bertakoa zuen eta aita, berriz, Izurdiagakoa (Arakil). Bere anaia [Juan](#)ekin batera egin zion grabazioa Koldo Artolak 1986an.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Laboreak neurtzeko kutxak; "erregunerrie"

- **Hizlaria(k):** Goñi Erro, Hipolito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref:** ITZ-001/001
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Laboreak neurtzeko kutxen inguruko azalpenak. Lur-sailen neurriak; "erregunerrie".

Transkripzioa

- Nola dira pikorrak neurtzeko kajon hoiak? (...) nola dira medida hoiak?
- Aaah! oiek, guardatzen tzen-tzen... erregue, da... ah, ta biño, ez! ez giñuen, ez giñuen e... pika-, (zuzenduz:) pizure, erreguek pisetzen du... oitebi kilo, e? ta, modu ortan, artzen giñuen, ez giñuen... ibiltzen e, neurriak etziren ibiltzen, etziren ibiltzen ya.
- Horiek ziren neurriak, e?
- Ori? ori? pues pizue, pizue; erdene-, erregurdia ateratzen bazen? amek at gero? eta... ola, modu ortan, deitten tzen... egerruen kontuen in eta.
- Eta gero, erreguerdia baino ttikiagoa?
- Erreguerdie biño geyagau? gaitzerue, erraten tzaikiona.
- Eta horrek zenbat zuen?
- Orren erdie, erregurdien erdie, erdie; geo, beis? almötea.
- Eta gaitzeruerdi ez zen?
- Gaitzeru erdie? pues ori, ori de, ta gaitzeruerdie? ez, ez-ez, bi almote.
- Erregue, erreguerdie, gaitzerue...
- Erreguerdie, gaitzerue eta almoteak; ta... almuteerdie're... almuteerdie're baze.
- Orduan, gaitzerue eta almotea...
- Almötea, ta almuteerdie're bazen, almutean, almotean o erdie ere bai.
- Horrek gutxi izanen zuen.
- Eeee... etzen!... Gaitzerue? erregurdien erdie, ta orduen artu biar, bi almote t'erdie? e... ta eztizut nola... bi almo-, bi almöte... bai.
- Eta gero, lur-sailak, alorrak, erekitzeko alorrak eta, horiek izaten dituzte neurri batzuk; erdaraz zaio 'robada' eta, e?
- Ah, robada, bai, bai, erregunerrie, onea dee... euskeas erregunerrie guk.
- Erregunerrie? hori da 'robada', e?
- Bai-bai, ta (...) ¿diez robadas? amar erregunerrie, duzu...
- Eta 'robada' batek edo erregunerri batek zenbat metro kuadratu ditu?
- Neurrie... orrek? pues, orduan... metro kuadrado ta beti ez giñuen egiñen, ez... "Zazpi erregunerriko alorra daukegu, kara, edo sei erregunerriko alorra", o... ola, seis robadas, o... sei erregunerrie, erregunerrie. Erregunerri erraten tzaio or (...).
- Erreguerdie edo erregunerrie? (galdera desagokia geurea)
- E? erregunerrie, erregunerrie; tä... zaikion, bai, alorra ee. Por ejemplo, es, si es seis robadas, ahora pues, sei erregunerrie! sei erreunerrie; eztaki(t), erreunerrie? pues eztakit zenbat almota tuen edo zenbat... zenbat metro o... zuen.
- Bai, nolanahi ere erregune(u)rrie, bai. Eta bazen beste neurriak? alorrak neurtzeko beste neurri-klaserik?
- Ez, ez, ez...
- Ez, ez; beti hola, ezta? erregune(u)rrie...

- Erregunerrie...
- Hainbeste erregune(u)rri...
- Bai, bai; setecientos... zenbat metro ttö? trescientos... digo... ochocientos noventa y ocho metros, cuadrados ttu, erreunerriek, la robada...
ochocientos noventa y ocho metros, zortzieun ta... euskeaz.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Irurtzungo feria; aitak erakutsi bertsoak

- **Hizlaria(k):** Goñi Erro, Hipolito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref:** ITZ-001/002
- **Iraupena:** 0:04:55. **Hasi:** 00:04:05. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** Irurtzungo ferian gertatukoak kontatzen dituen bertso-sorta ederra abesten du. Aitari ikasi omen zizkion.

Transkripzioa

1) Milla zortzitan eun ta
Laurote oitezortzi
Munduko asuntuak
Aurten deramazki
Majiñe bat e parra
Azkar egin dute
Asto txiki poli bat
Dela mediante.

2) Irurtzunen ferie
Zen egun orreki
Gu ere juañ giñen
Ganadoareki
Utsik baño y obe du
Beti zerbaitekin
Denak gertatzen dire
Nekazarieki.

3) Patrizio deitzen tzaion
Kinkilleru ori
Apartetik oyuke
Joateko neri
Alkar salutatutzen
Ala giñen ari
Astua aldamanian
Zauken pregonari.

4) Numeruak zauzkien
Eskuen saltzeko
Astu oi artsaldian
Irrifetuzeko
Porfietu zitzaiden
Nik ere artzeko

Astu ori lenbailen
Enpleatutzeko.

5) Inazio deitu nuen
Bela neregana
Artuko ote geñuen
Biek erdi bena
Ez zela garesti
Biek xueldo bana
Arrixka la fortuna
Suertiaz berama.

6) Numeruak nerönek
Eslejituriken
Bi xueldo pagatute
Sartu nuen patriken
Nongua ta nor nitzen
Liste arturiken
Gero izen ez neri
Gizon moduriken.

7) Artsaldeko bi orduak
Dire bitertian
Jendia juntatu zen
Estanko batian
Numeruak sarturik
Eltze motz batian
Publiko yokatu de
Guzien aurrian.

8) Ögei t'iru lumero
Joan dire airian
Guria suertatu de
Ogeite laubian.

... ..

... ..

Pastarako abria
Pezt'erdi betian.

9) Bizente Otamendi
Erriko alkatia
Orrek tiratu zuen
Astuan suertia
Berak ere bazuen
Zerbait inportia
Arrek lana (y)eginta
Guretzat suertia.

Biño? ya, osti koitti... Gero? beis... aitei additus ¿verdad? (...) biño, ez baitu(u) kursetzen atzen du(u). Gero, gero...

10) Andre bat an asto gañen
Geñuen paratu
Onela sartu giñen
Bizenteren Bentan
An trago bana eginta

Andik abiatu
Urren da Latasaa
giñen allegatu.

11) An trago bana eanta
Andik abiatu
Mutil bat asto gañen
Giñuben paratu
Beste iru launek
Atzetik kantatu
Onela Goldaratzza
Giñen allegatu.

12) Jendia juartu zenea(n)
Gure kantetara
Denak atera ziren
Atarietarea
Iñok etzuen prisarik
Guztie (o)lgetara
Gu geren astuakin
Denak tabernara.

13) Astoak jan zittuen
Maitze ta belarra
Gaixuak bazauken
Zerbaiteren biarra
Gu beris ogiekin
Denak sardintzarra
Lau trago (e)do geyego
Edo janari txarra.

14) Egun artan berian
Erostune bazen
Derrepente saltzia
Arrazue ez zen
Lemixko kinkilleru
Ori
(bertso batzuk
idatzi gabe utzi ditugu)

15) Laugarren eostune
Gallego Bizente
Orrekiñ egin duu
Tratua dezente
Asko sanidadera
Dirue presente
Olakuak'de zire
Askoz esijente.

3. Aisia

3.1. Ergako Trinitatea

- **Hizlaria(k)**: Baraibar Erbiti, Gregoria

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: ITZ-002/001
- **Iraupena**: 0:03:58. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:58
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- **Laburpena**: Trinitateko hirugarren egunean festa egiten zen Ergako Trinitate ermitan. Gulibar guztiko jendea biltzen zen. Prozesioa egiten zen, bidean letaniak kantatuz.

Transkripzioa

- (Egiten al da) erromeria edo, a la Trinidad de Aginaga edo?
- Ezta itten ya.
- Baina denboraz bai? denbora batean egiten zen?
- Bai, lenago itten tzen.
- Noiz, noiz egiten zen erromeria hura?
- Asteartean.
- Baina noiz? maiatzean, abuztuan, edo zein egunetan?
- Trinitateko... iruarren eunian.
- Eta zer egiten zen? joaten zen hemendik?
- Emendi? apezaki ta... gurutzeaki ta dena, prozesioan juaten tzen.
- Bai? herri guzia?
- Erri guzia? balle guzia, Guliko balle guzia.
- Eta denak biltzen ziren ellegatu baino lehen?
- Biltzen tzeen?... Aña-a, Ainagara.
- Ah, Aginagara; eta gero, handik elkarrekin...
- Ta gero? andik elkarreki(n), prozesioan, gurutzeakin ta Ama Berjiñekin ta... dena.
- Eta bidez zer egiten zen, errezatu?
- Bidean... letaniak kantatzen tzien.
- Latinez?
- Latinez, ta... geo, area jua? ta... nai zuna? gosaldu, nai zuna? mezara jua? lemixko ematen tzuten meza at, ta geo... gosaltzea denak; beis, denboa, ordu at o... ze? pastuko zen, an, gosaltzen ta... itzez, itz ekitten ta, ala, ta geo, beis, meza, ta... geo, beis... o elizea despeditzea? ta geo itxea. Ori asteartean. lendea? juaten tzeen... nai zuna, orduen etzen prozesioik eta ez daus, bakotxa nai zena juaten tzen ta, ordun bai, orduen bazeen txutxeria-saltzaleak eta denetatik; nai zuna dantza, nai zuna jan, bakotxak libre zuna, ta nai zuna, nai zuna or... orduen? juaten tzen? ta... bueltatzen tzen, biño asteartian ez, asteartian prozesioan juaten tzen? ta prozesioan... etortzen, bai. Orduen, bakotxa... biltzen tzen prozesiora ta, alaxe, bueltatzen tzen.
- Eta apezak predikatzen zuen?
- Ez! predikatzen... gutxi, zerbait, itzen batzuk itten zittun biño, lenbelen despatxatzea, elizetik ya an otza itten baitzun; ez, gu... otza zen ta, lenbelen despatxatzea. An, sue aundie itten tzuten, itxa bada ta... an, maiek ee baita, suen... ingurura jentea biltzen tzen, gosaldu eta. Ta ya, ezta kontatzekoik ortatik.
- Euskaraz ez zen predikatzen?
- Ez-ez-ez-ez-ez... ezpaitzen euskaldunik! nee denboan guk eztuu euskaldunik, kasik eta.
- Eta zu txiki edo gazte zinelarik, hemengo apezak nongoa zen?
- Eztait nungua zen; izena don Frantzisko zuen.

- Baina ez zen herri honetakoa, eta euskaraz ez zekien...
- Eztait bazakin biño nik, nik ez nuen-un zautu ure e kasi; ni aitzea, besteai aitzea.
- Eta saltzaileak zer saltzen zuten, txutxeriak bakarrik edo aziendarako yoaleak eta halako gauzak?
- Ez-ez-ez-ez-ez... yoaleak bai, bat eo beste izein tzen biño gutxi, biño... eh! txutxeriak, aurrendako txutxeriäk, dultzëak eta ala, kaameloak ta...
- Eta zer musika sonatzen zen? txistu edo... akordeonista edo?
- Bah!... enaiz ooitzen ni ya ze txistu, ze... biño, jendëa juaten tzen, inguruko jendiak juaten tzeen, akordeonon bat.
- Bai erromeria pixka bat eta egiten zen...
- Klaro, piskat animetzeko.

4. Baserria

4.1. Ogia nola egin

- **Hizlaria(k)**: Baraibar Erbiti, Gregoria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: ITZ-002/002
- **Iraupena**: 0:04:02. **Hasi**: 00:03:58. **Bukatu**: 00:08:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Garia
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Ogia nola egiten zen azaltzen du. Labea nola garbitzen zuten.

Transkripzioa

- Ogi itteko, artesa... zun izena; da ganbella bat bezala iñe? ta an botatzen tzen lemixko iriñe. Geo? an itten, entrepian itten tze(n)... zulo at bezala? ta... an botatzen tzen, lemixko... iriñe, ta geo... gatza, geo... ¿la levadura cómo es?

- Orantza?

- Orantza, ta pixke-pixke artzen tzen lanean arrekin? esku? ta... ore, ya masa gogortzen tzelaik pixkoat? uzten tzen deskansatzen, be... denboa puskuat? ta... ya, biltzen tzen oyal batian, ta an bildu ta uzten tzen, be, bee... azpian paatu... su pixkuat? ez ozteko? ta... ore, oyal ore goortzen tzelaik? ya... masa azten tzelaik? itten tzeen obiek. Baki puskoat? ore... beis masatu? ta... paatzen tzeen, olan gañen, paatzen tzeen... manta? do... mainderia do ola, an uzteko ogiek, beis, beste... denboa pixkoat? ta... an beis, azten tzeelaik gexago? sartzen tzeen labea, erretzeko. Labian, lemixko gal-, garbitzen tzen barneti? ta an sartzen tzeen pala bateki.

- Nola garbitzen zen, edo zerez?

- Garbitzen tzen, pal-, o makil betean puntan? partzen tzen... maizen ostoa, o... tzeai, berde balin bāzen? ta garbitzen tzen moo... urian, bostu ore? ta... garbi-garbie utzi labia?...

- Bustu? busti?

- Busti ore? ta... garbi-garbie utzi labia? ta geo obie sartu, ta... labean, labean aguan? biltzen tzen sue dena, sue ta... zea, la ceniza... autse! sue ta autse dena biltzen tzen, ta arren gañen? koloria artzeko? botatzen zakion... arram-, rama batzuk, su pixkoat itteko, agia, (zuzenduz:) labian aguan? ta... kolorea artzen tzuelaik? uzten tzen ya... denboa... denbora franko, de ogie pixkoat gogortzeko; ta ya, iduitzen tzakiolaik bakotxai, iñik

zeola? pal...-akën, sartzen tzen palaki? ateatzen tzen ogie. Ya está, el pan hecho.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Gulibarko Aginagan sahatsak ebaki eta gurutzeak egin (ITZ-003/001)

San Juan bezperan suaren gaineretik salto egin eta "San Juan bizpera, sarna fuera" esaten zen. Sahatsak bedeinkatze ziren, gurutzeak egiteko.

2. Eguberrietako "bazarreko" enborra Aginagan (Itzan) (ITZ-003/002)

Eguberrietan egur handi bat jartzen zen sutan, Jaungoikoarentzat. "Bazarreko" esaten zioten. Gero enbor txikiagoak jartzen ziren Ama birjinarentzat eta familiakoentzat.

3. Errege egunaren bezperako "cencerrada" Aginagan (Itzan) (ITZ-003/003)

Errege egunaren bezperan "cencerrada" egiten zutela aipatzen dute.

4. Larunbe: Txiribiri delakoa Irurtzundik hurbil (ITZ-004/001)

Urteberri egunean kantatzen ziren koplari zati bat.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com